



Ezin dutenen alde, topa

AMETS ARANGUREN HATORTXU ROCK

A benduaren 16tik 18rako ATEBURUA izan du Euskal Herriak aurten, letra larriz, LABAko lagunek haien programazioaren kartelean iragarri zuten gisan. Gertakari historiko pare batekin zuen zita herritar arruntak: bueltan Hertzainak ostiral eta larunbatez BECen, eta Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Hiri Buruzagiko Nafarroa Arenan ospatuko zuten lehen aldiz. Birtartean, sarrerak erosteko prozesuan bankuetxerik tartean izan gabe egin dute beste kontzertu bat Atarrabian. (Esan behar nuelako esan dut hori, baina bai, nik ere banuen sarrera ostiralean Barakaldora joateko).

Hatortxu Rock jaialdiaren 27. edizioak berreskuratu du plaza pasa den abenduaren 17an bere urteroko abenduaren bukaerako datan, pandemiaren ondoren. Berriz elkartu dira neguko karpapean musikari, kameralari, zerbitzari, entzule, sukaldari... Ehunka txandolari boluntario eta milaka bisitari.

Sarrerak kudeatzen dituen lantaldeak kanpoan du kasetea. Hortik pasa behar du jende guztiak, sarrera erakutsita sartu-irtenak ahalbidetuko dizkion pultsera jartzeko. Aurten ikusi ditugu sekula huts egiten ez dutenak, Bilboaldea urrutiegi geratzen zaienak, egun osoa bertsoak entzuteaz paso egiten dutenak eta azken hilabetea triplerako prestatzen eta aurrezten ibili direnak. Motibatuta asko, lehen aldiz zetozen beste zenbait, estatuko beste puntatik datozenak eta baten bat HTX-ko aurreko edizioako sarrerarekin sartu nahian.

Baina berezitasun bat izan du aurtengo neguko edizio honek. Elkartasun jaialdiak beti gordetzen du tarte bat mezu politikoa hitzartze baten bitartez emateko, baina aurten, lehenengo aldiz ikusi ahal izan dute euskal presoek zuzenean Euskal Herriko espetxeetako batzuetatik Hamaika Tebistaren bidez. Reimyk (eta bere "bizikletak", noski) gurutzatu du punta batetik bestera Ha-

HATORTXU ROCK

NOIZ: abenduak 17

NON: Atarrabia (Nafarroa)

tortxuko karpa handia, eta *Hator hator* kantuen moldaketari gehitu zaio kantuan oholtzapeko jende guztia. Reimykren atzetik urte luzez sakabanaketaren kontra lanean ibili diren kolektiboetako ordezkariak eta preso senideak. Gero eta gertuago ditugun arren, azken txanpa honetan egin beharreko lana inoiz baino beharrezkoagoa dela azpimarratu du jaialdiak.

Pantailaren bestaldean zegoen aitari mintzatu zaio Xochitl hitzartzean eta, horren ondotik, Asier Capón akordeonista eta arreglista zuzendari, soka laukote eta hainbat musika taldetako partaideek osaturiko koro ederrak egin diote koltxoia Idoia Tapia abeslariari, Capónek berak moldaturiko Etxakit taldearen *Gurekin* kantua emanez. Dotore, delikatu eta indartsu.

Ekitaldia ixteko, urtero bezala egin dute topa, aurtengo gabonetan ere etxean eta etxekekin egin ahal izanen ez duten horien guztien alde topa. ●